

HIRU TXERRITXOAK

Baziren behin bere amatxorekin bizi ziren 3 txerritxo. Amari izugarrizko lan pila ematen zioten eta halako batean ama guztiz aspertu zen eta honela esan zien:

-Txerritxuok. Asko maite zaituztet baina 35 urte egin dituzue eta bada garaia zeuen etxe bat izateko.

- Ados amatxo! –Esan zuten hirurak batera eta beraien etxea prestatzera joan ziren.

Txanogorritxo basora sartu zen eta korrika zihoala adar bat ikutu eta hankaz gora erori zen. Sopa dena erori zitzaionez berriro etxera itzuli zen sopa gehiagoren bila.

Lehenengo txerriak Jox deitzen zen eta oso alperra zen. Belar batzuek hartu zituen eta bere etxetxeoa azkar azkar bukatu eta etxe ondoan eseri zen hamaka batean, betaurreko beltzak jarri, koka kola bate dan eta eguzkia hartzen.

Bigarrena Txir deitzen zen eta nahiz eta Jox baino langileagoa izan, hau ere nahiko alperra zen. Egur batzuk pilatu zituen eta egurrezko etxetxo bat osatu zuen. Hau ere ahulki batean eseri zen koka kola edanez eta betaurreko beltzekin eguzkiari begira jarritz.

Azken txerritxoa Xar deitzen zen eta oso oso langilea zen. Gauzak ongi egitea gustatzen zitzaion. Buru belarri aritu zen adreiluzko etxea egiten.

Anaiek Xar izerditan ikustean esaten zioten:

- Zertan ari haiz motel! Alde ederra dek eguzkia hartzen egotea koka kola bat edanez.
- Gauzak ondo egin behar dira! Erantzuten zien.

Gaua iritsi zen eta bakoitza bere ohera sartu zen. Halako batean otsoak belarrezko etxearen atea jo zuen atea irekitzen ez bazuen etxea botako zuela esanez. Esan eta egin. Etxea putz eginez erraz bota zuen eta Jox korrika atera zen pijama eta guzti Txir-en etxera.

Ondoren otsoak egurrezko etxearen atea jo zuen eta berriro berdina esan zien barruan zeuden bi txerritxoei. Esan eta gin. Etxea

putz eginda bota zuen eta Jox eta Txir korrika atera ziren Xar-en etxera.

Bi anaiak beldurturik zeuden baina Xar oso lasai zegoen. Otsoak atea jo zuen eta mehatxua bota zuen.

- Ez dizut aterik irekiko! Txotxolo! – Erantzun zion Xar-ek otsoari.

Otsoa asko haserretu zen eta behin eta berriz atea botatzen saiatu zen, baina ezin izan zuen bota.

Orduan tximinitik sartzen saiatu zen baina Xar-ek tximinian petardo bat prest zuen eta otsoa gerturatzean petardoa lehertu egin zen. Otsoa ilargiraino iritsi zen eta beherakoan ibaira erori zen.

Eskerrak igerian bazekien eta ibaitik onik atera zen baina hoztu egin zenez katarro haundi bat harrapatu zuen. Ordundik aurrera “atxix” eginez dabil otsoa eta inori ezin dio sustorik eman denek baitakite nondik dabilen.

GALDERAK

1. Norekin bizi ziren txerritxoak?
2. Zenbat urte zituzten?
3. Nola deitzen ziren txerritxoak?
4. Jarri E egia bada eta G gezurra bada.
 - a. Xar oso alperra zen.
 - b. Jox-ek belarrezko etxea egin zuen.
 - c. Otsoa lehenik Txir-en etxea bota zuen.
 - d. Xar oso urduri zegoen otsoa etorri zenean.
 - e. Otsoa ilargiraino iritsi zen.
 - f. Otsoa ibaian ito zen.
 - g. Orain inor ez da otsoaren beldur.
5. Azpimarratu sobran dagoen parrafoa. Pentsatu parrafo bat zer zen.